

BALEIKE

200 pta.

61. zenb.



● **Kirolzer enpresak eramango du Lubaki kiroldegiaren gestioa**

● **Bertsolaritza: Zumaiak aurrea hartu dio Oriori kanporaketako lehen saioan**

● **Kirolaz blai Triatloia eta Zakila Birarekin**

● **Narrondo: pazientziaren soka eteteko zorian**

Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Carpintería metálica

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

Zumaiako herri aldizkaria
BALAIKE

700
aldizkari salgai,
zuk erosteko zai

honako puntu hauetan:

OKINDEGIAK:

ERROTA:

Basadi
Erribera
Juan Belmonte
Alai

OGI BERRI:

Amaiko plaza
Basadi
Erribera

ARKUPE

LIBURUDENDAK:

AIZPURUA
LOITZ
OLANO
TAOSA

JANARIDENDAK:

ALAI
ZUBIMENDI

TABERNA - JATETXEAK

INPERNUPE
NARRONDO

BESTELAKOAK:

ARROA BEHEKO ESTANKOA
FOTO GAR

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxes: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro
Ane Osa

Joseba Ossa
J.L. Romatet
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Igor Uranga
Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor,
Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Daniel Garrido

B orria

Dani Carballo
(aurreko alekoa): Mari
Bernal

Argazkiak

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Faemino eta Cansado. Airbag eta ETB



Gorka Zabaleta

- Faemino: Medikuek esan dit neuronak erretzen ari zaizkidala. Nik esan diot "hobe, horrela leku gehiago besteentzat". Erretzeari uzteko esan dit. Nik esan diot "bai, zuri palzer hori emateko. Ez jauna, erretzen jarraituko dut eta uztea nahi baduzu gainean izan beharko zara, horretarako ordaintzen baitzuzut". "Gainera, ez daukazu ideiarik, Hainbeste ikasi eta koldar hutsa baino ez zara".

- Cansadi: Zergaitik?

- Faemino: "Birikia eta bihotza. Horixe bakarrik dakit, ai mesedez, ez nazazu hortik atera!". Medikuntz orokorra ikas ezazu, denetarik jakiteko!

- Cansado: Hau izugarria duk! Tipo bet zortzi urtez birikia eta bihotz ikasten? Etzak adarrik jo. Eta beste birikia zer?

Horrela irakurrita txarra da, ezta? Graziarik gabe gelditu da, ridikuloa, pasarte hau barre-garri egiten duen benetako sustantzia kendu diodalako: umoaregileen hitzegiteko ere berezia, jatorrizko hizkuntzaren txiste propioak, egoere bera... ETBko zuzendariek zinea euskeraz eman nahi badute: 1.- Euskaraz egindako zinea bultza dezatela. 2.- Itzultzekotan, ahal den gutxiena galtzen duten filmak hauta ditzatela. 3.- Hobeto egingo lukete filmak jatorrizko bertsioan emango balituzkete, azpitoluokin, Hizkuntzak ikasten lagunduko liguke (edo irakurzaletasuna piztuko luke), eta, bide batez, europarragoak izango ginateteke.
Enfin.


Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikirolegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



OLALDE

Gaia (ofizioka, 10eko txikian): Zu, Olalde, Lazkao Txiki zara. Sukia, berriz, Txirrita. Zerutik ari zarete zuen pertsonak irudikatzen dituzten marrazki bizidunei begira.

*Botatzen dituzte bai
nere hainbat txiste
entzun ta jarritzen naiz
batzuetan triste
joateko gogoa're
etortzen zait laiste
horren eskas ginenik
nik ez nuan uste
muñekoak bezela
ibiltzen gaituzte*

LIZARRETA

Gaia (Ofizioka, 8ko handian): Lizarreta euroa zara eta Esoain pezeta.

*Garai batean izan zenduan
ez dakit zenbat balore
gaur eguneko mundu honetan
ez duzu hainbat sabore
txiki gelditu zerade eta
lehenbailehen utzita hobe
parregarria zerade ia
elizan botatzeko're*



JON MAIA

Udako suak eta negurako egurra

Pasa den hilabetean, herri izaera eraikitzen eta indartzen duen ekitaldi horietakoa burutu genuen Zumaian. Gipuzkoako Herri arteko Bertsolari Txapelketaren lehen kanporketa-afaria.

Eta ez zuen gure herriaren izakera indartu Orioren aurka jokatu eta irabazi genuelako. Ez eta ere 120 pertsona bildu zirelako, afaldu eta bertsoak entzun asmoz. Ez dira horiek emaitza garrantzitsuenak, iksugarrienak badira ere.

Garrantzitsuenak, guzti horren atzean dagoena da: lau hilabeteetako aurrelana, prestaketa, antolakuntza prozesua, ilusio iraunkorra... azken batean, erakuslehoaren atzeko almazena betea egotea da garrantzitsuenak, egun handiaren aurreko egun anonimoen dinamika da garrantzitsuenak.

Lore ederrez ornituriko balkoiak, egunero loreak ureztatuko duenik ez bada etxean, egun gutxirako baitu edertasuna.

Zumaiak, bertsolari txapelketa honekin herriko bertso eskola berreskuratu du, birziklatu eta indarberritu egin du eta hori, bere apaltasunean berri ona da herriarentzat.

Udako etengabeko ekitaldi su-traka, hori baino ez baita, zeruan lehertu eta unean bertan desagertzen den traka hutsa; herrian sustrairik edo aztarnarik uzten ez duena. Erakusleho hutsa baino ez, engainagarriak dira udako su handi horiek; ondoren, negua luzea baita kostaldeko herri txiki hauetan, urte osorako diruak erreaz eginiko su handien ondoren, apal apal zenbat eta honelako sutondo gehiago piztu, orduan eta errazago pasako dugu, beroago, bata bestearren arrimuan.



7 MARES
Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA
agustin
OL HARAKINA
Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

BASADI
ALBAITARITZA
KLINIKA
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-
Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean
Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508



Kirolzer enpresak eramango du Lubaki kiroldegiaren gestioa

Irailaren azken bi asteetan itxita egon ondoren, urriaren lehen egunetan zabaldu zen Lubaki Kiroldegi eraberritua. Erabe-

rritua bai fisikoki, sauna eta hidromasaia zerbitzu berriak izango baititu (artikulu hau idazterako, kiroldegia oraindik obretan zegoen), eta baita ere gestio aldetik, oraindik aurrera, eta 10 urterako, Kirolzer s.l. enpresa nafarrak eramango baitu bertako gestioa.

Kirolzer orain bost urte sortu zen eta Euskal Herri mailan beste lau kiroldegi gestionatzen dituzte: Hondarribia, Billabona, Lizarra eta Arbizukoak. Enpresa kirolaren munduan mugitzen den jendeak osatzen du: soinketan lizentziatuak, kirol gestioan adituak, Bartzelonako olinpiadetan lan egin duten jendea etab. Kirolzerekoen esanetan, beraiena "gestio berritzailea da, oso denbora gutxian dabilena. Zeharkako gestioa da guk egiten duguna. Lehen kiroldegiaren gestioa udaletxeek eramaten zuten, eta hauek konturatu ziren dirua galtzen ari zirela. Gestio modu honetan atera ziren lehen kiroldegiak Bartzelonan izan ziren, olinpiadetarako egin ziren kiroldegi hauekin. Ondoren Nafarroakoak etorri ziren, eta hor gu hasi ginen. Hori bai, garbi utzi behar da, instalazio hauek publikoak izaten jarraitzen dutela. Udalarena da, Udaletxeak jarraitzen du agintzen: kuotak kontrolatzen ditu, gure gestioa kontrolatzen du, berak kontrolatzen du ze iharduera izango diren, baina ez du inongo diru galerarik".

Kiroldegia itxita egon den bi aste hauetan, enpresa honek, Udalaren onarpenarekin, iharduera, ordutegi eta prezio berriak ezarri ditu. Eta hor egon daiteke arazorik handiena, ze abonatu izateko hilabeterako kuotak, aurreko urtearekin konparatuz ia %400eko igoera izan du. Horrek herritar asko sutan jarri du, inguruko kiroldegietako kuotekin parekatuz, ia bikoitza ordaindu behar baita Zumaian. Kirolzereko gestoreen ustez beraien gestio sistemak "halako ezberdintasun bat du. Zuk hilean prezio bat ordaintzen duzu, eta kiroldegiko instalazio denak erabil ditzakezu inongo tasa extrarik gabe. Guk estudio konparatibo pila bat egin dugu. Hartu dezagun Zarauzko kiroldegia. Agian hileko 1.100 pezeta ordaintzen dituzu; baina sauna bat hartu nahi baduzu, 300 pezeta ordaindu behar dituzu; squash edo padelera jolastu nahi baduzu, 400 pezetako alokairua; hidromasaia, 300... Batuketa egiten baduzu, guztira ez da garestiago bakarrik ateratzen, ia bikoitza ordaindu beharko duzu. Guk nahi duguna jendeak kirola egitea da. Kiroldegi guztia duzu nahi duzun eran

erabiltzeko, eta gainera dohain. Ihardueren aldetik, adibidez, lehen aerobic kurtsoa 2.200 pezeta ordaindu behar zenuen hileko, orain 7.000 pezeta da kurtso guztia. 'Pack global' bat egin dugu. Noski, egongo da kalte egiten dion jendea eta on egiten diona. Estadistikek diotenez, askoz jende gehiago ateratzen da pozik kaltetuta baino. Noski, ez dugu inoiz izango gestio sistema hau perfektua denik. Badakigu honek bere zuloak dituela, baina defenditzen dugu, gure ustez gestio sistema ona baita".

Kirolzer enpresaren asmoa gestio ezberdin bat eramatea da eta horretarako "jendea ohitu egin behar da. Guri oso ondo joan zaigu gestioa eramaten dugun beste kiroldegietan. Udaletxeak gu aukeratu gaitu ziur aski beraien ustez gure eskaintza onena zelako. Egongo da jendea atsegin duena eta atsegin ez duena, baina guretzat garrantzi handia dute gure abonatuak. Guztira 12.000 abonatu inguru ditugu gure lau kiroldegietan eta hauek beraien onarpena eman digute".

◀ JUAN LUIS ROMATET

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe

Gizonezkoen erropak



Zumbillo, 4 Tel. 861407

Hilaren amaiera arte izango da zabalik "Abertzale-tasuna Zumaian" erakusteta

Iragarri baino apur bat beranduago izan arren, zabalik da jadanik Jose Esnalek eta Erkibe Kultur Taldeak abertzale-tasunari buruz prestatutako erakusketa. 1931-1940 epean Zumaian abertzale-tasunak izandako garapena eta bizitako une latzak ekarri ditu gogora Joseba Esnalek. Bi urte eman ditu dokumentuak, argazkiak eta orduko tresnak, arropak eta bestelakoak biltzen. Aurkezpe-naren egunean Joseba Egibar bertaratu zen, argazkian ikus dezakezen bezala.



San Juan egoitzako pasealeku berria

Jakina denez, San Juan Egoitzako aitona-amonek beti izan dituzte bere paseoak egiteko arazoak, ez baitute ia lekurik, eta beti ere egoitza aurreko maldetan ibili behar izaten dute. Hori dela eta, egoitzari lotuta, Ubilloseko rock taldeen lokalen gainean, pasealeku berri bat egitea erabaki da. Enparantza berri hau Egoitzaren jangelarekin lotuta egongo da pasillo baten bidez, eta horretarako gela bat

kenduko da. Enparantza honen eraikin nagusia egurrezko pergola bat izango da, landarez josita. Honen azpian, pasealekuaren erdian, iturri bat jartzeko asmoa zegoen, baina aitona-amonen joko eta egin beharrentzat batera egokia ez zenez, iturri hau albo batera eraman da. Pasealekuaren lurra, hori koloreko ibaietako harri txikiz egin da, eta inguruan kalizazko zinturoi batzuk izango ditu.



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



Erribera kalea, 2
Tel. 861125

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAIÁ

Basadi, 12 beheha Tel. 861018

BALEIKE

1999ko urria, 61. zenb.

Basadi auzoa berrurbanizatuko da



Zumaiako Udaleko hirigintza Batzordeak Basadi Auzoa berrurbanizatzekeo proiektu bati onarpena eman dio. Jakina denez, Basadi poligonoa egin zen momentutik, auzo honek arazo ugari izan ditu. Hauen arrazoiak, pilotazioan aurki daiteke, ze etxebizitzaren pilotateak harri gainean daude ezarrita, baina bide eta espaloiak hondar gainean egin ziren. Honek ondorio garbiak izan ditu: etxebizitzak

bere tokian mantendu dira, baina bide eta azerek behera egin dute. Auzoaren arazo hauek argi ikusten dira atari eta espaloien arteko distantziaren handitzean. Lehen atarian sartu nahi bazen, eskaloi bat igo behar zen. Orain, eta urteetan zehar auzoko bideek jasan duten beherakadaren ondorioz, atarian sartzeko bizpahiru eskaloi igo behar dira. Lur azpiko tuberietan ere eragin handia izan du beherakada horrek, auzoko hainbat tuberia lehertu baitira.

Proiektu honekin lur dena altxatu ondoren, tuberia eta azera gaineko arketa denak behar bezala jarriko dira. Ura, telefonoa, argi indarra eta gas tuberiez gain, telekomunikazio berrientzat tuberia berriak ere sartu nahi dira. Lur dena konpaktatu ondoren espaloï eta bidea behar diren mailan jarriko dira, eta espaloï hauek

zabaltzeaz gain, aparkaleku gehiago eta ordenatuagoak lortzea ere espero da. Basadi Auzoko azken eraikuntza eta polikiroldegiaren artean dagoen lur sail horretan lur azpiko aparkamendu bat egitea ere pentsatu zen. Honek bere gainean enparantza bat izango luke. Hau noski, biztanleen esku dago, Udalak ezin baitu jendeak eskatzen ez duen aparkamendurik egin.

Basadi berrurbanizatzekeo proiektu hau Sestra enpresari eskatu zitzaion, eta auzoko biztanleek onarpena eman zioten. Enpresa berari eskatu zaio aurrekontua. Proiektu hau fasetan egingo litzateke, bata bestearen atzetik joango litzatekeen fase ezberdinetan. Aipatu behar da berrurbanizatzekeo hau Zumaiako Udalak ordaindu behar duela oso -osorik.

“Zumaia 650 urte. Hitzaldiak” liburua argitaratu da



Pasa den irailaren bukaeran, Foronda Kultur Etxean, Zumaiaren 650. urteurrena zela eta honen azken ekintza gauzatu

zen. Bertan “Zumaia 650 urte. Hitzaldiak” liburua aurkeztu zen. Aurkezpen honetan presente izan ziren Ricardo Peña alkatea, Maria Eugenia Arrizabalaga kultur zinegotzia, Elena Barrena historiagilea eta Joseba Ossa. Azken honek urteurren horretan zehar eman ziren hitzaldi denak batu eta koordinatu ditu, azkenean liburu moduan atera-

tzeko. Hitzaldi ziklo hau 1997ko uztailaren 4an hasi zen Elena Barrenaren “La carta puebla de Zumaia: la sociedad que trasluce el texto”-rekin eta 1998ko maiatzaren 15ean amaitu zen Michael Barkhamen “Industria y comercio en la costa vasca durante el siglo XVI: el caso del puerto de Zumaia”-rekin. Tartean beste hainbat aditu eta historiagile pasa ziren Forondatik, besteak beste Lourdes Odriozola, “Zumaiako historia” liburuaren egilea, Asentxio Elustondo Zumaiako bikarioa, “Zumaiaren mila urteko bilakaera” hitzaldia eman zuena, eta Ismael Manterola “Artea Zumaiaren”-ekin herriko kulturaz aritu zena. Liburuaren amaieran J. Ignacio Tellechearen “Zumaia hace doscientos

años” liburuaren faximila agertzen da. Tellechearen lan hau 1986an argitaratu zen eta egilearen borondatez sartu da hitzaldi liburu honetan.

“Zumaia 650 urte. Hitzaldiak” herriaren 650. urteurrena zela eta kaleratzen den hirugarren liburu da. Aurretik “Zumaiako historia” eta “Zumaia oroitzuz” argitalpenak kaleratu ziren, biak ere salmenta maila bikaina lortu zutenak, argazki zaharren liburuak bereziki. Oraingo hau Foronda Kultur Etxean egongo da salgai 1.000 pezetaren truke, eta Euskal Herriko kultur erakundeetara, liburutegietara eta inguruko ikastetxetara bidaliko da.

Arkupe
Okindegia eta gosariak
Kale nagusia, 2 Tel. 861521

ad AUTOS ZUMAIA
Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Ford
Azkue Autoak
Estazioko kalea, 19
Tel. 861433
Faxa: 861067

Leihoaren ...ahotik

"Behin batian bazan...

Aitona, Beinbatianen bizi nahiko nuke. Zenbat gauza gertatzen dian han, eh?

Bai Maialen, herri oso polita da, ta gainea bertako bizilagunak oso txintxuak dira. Hala da Joxetxo ere, zortzi urteko mutil jator bat.

Aitona, ni bezela. Harek ere kumuniua aurten ingo al du?

Bai Maialen, aurten ingo dula uste det, ta baita Manubel bere lagun minak ere. Bai, bi hauek dira ipuiko bi adiskidiak.

"Udazkena iritsi berri hartan, hego haize zakarra altxatu zan Manubel eta Joxetxo ikastolatik erteteako. Zuhaitzak dantzan zebiltzan, ta plastiko ta potiak hegan haiziak nahi zun aldeaka. Pentsa, kinkilerotan enkargutan zebiltzan etxeoandrien gonak ere arpegi pareaino altxatzen zitun, zea danak bist...

Aitona, hasi al zea berrize berdekeiak, amai abixatuko diot, eh?

Lasai Maialen, gaurko ipuian ez da ta Pamela Anderson minigonakin azalduko. Gaur Manubel ta Joxetxo bakarrik azalduko dira, egitan.

Nun nujan ba? Ah, bai, ikastolatik erten zian. "Arratsalde hartan ez zuten egunero bezela pote-poteka jolastu nahi lagunekin. Ikastola atzian zegon mendira jutia zeukaten pentsatuta. Han bazan pinudi bat, ta bertan pasako zituzten

etxera juteko garaia iritsi arteko orduak. Ta hala, pinutegi aldera abiatu zian. Baina udazkena zanez haize haundia iten zun, pentsa, kinkilerotako etxeoandriei ere gonak eramaten...

Aitona! Berrize?

Lehen ere esan al dizut ba haizia zegola? Barkatu. Baina gonana egia da, eh!

Bueno, ba bazijuazen mendian gora, ta ezetz asmatu zer erori zitzaizen zerutik?

Badakit, kaio batek xirina in zien begira!

Maialen, faborez... "Haiziak zerbait utzi zun beraiengandik hoge bat metrota. Manubel ta Joxetxo hori ikusita, korrika urreatu zian gauza hura eroi zan inguru hartan, ta belar artian bila jardun ondoren Manubelek oihu in zun: Joxetxo, Joxetxo, gaur suertia zikau. Beitu zer ekarri diken haiziak. Joxetxo jun zan Manubel zeon tokira, ta hura poza!

Badakit, Mario Brosen bideojokua ekarri zun haiziak. Baietz aitona? Ta geo aurrexio jun zian, ta pinu batian txintxilika Barbie muñeka bat ikusi zuen, ta eskalau zuen goraino, ta konturau zian muñeka bakarrik ez zeola. Ze baloi bat ikusi zuen aldameneko adarrian, ta pixkat beruo eskalestris bat, ta haren onduan kotxekapota bat, ta... Aitona, zurrunkaka ai zea. Lo hartu al dezu?

Bai? Ze? Nola? Ah ez, pentsatzen ai nintzan.

Ta ze in zuen zuhaitz miragarria bilau zuenian?

Zuhaitz miragarria? Ah bai. "Ba pentsau zuen hura beaien sekretua izango zala, ta ia iluntzen ai zunez, biak etxea jun zian poz-pozik. Ta hau hala bazan ta ezpazan...

Nola bazan ta ezpazan, hoixe ez zala hala! Nola bukauko da ba ain axkar aitona? Uaindikan goizo da.

Goizo? ba bueno. "Uaindik etxea juteko ordua ez zanez, herriko moilan gelditu zian biak, ta pentsau zuen lurrian zeuden harri txintxor danak ureta botata, igual itsaso guztia harriz beteko zala. Ta hala hasi zian harriak botatzen, ta Joxetxok esan zun: Zenbat harri eongo dia hemen Manubel? Ta orduan itsasua betetzeko zenbat harri bihar zian kontatzen hasi zian, ureta botatzen zituen bitartian. Baina pentsatu zuen harek umien arteko sekretua izan bihar zula, ta haundiek ez zutela ezer jakin bihar".

Horreatik hobe izango da zuk laguntzia kontatzen, ta bukatzen dituzuenian abixatu nei, kuartuan eongo naiz ta zai.

Gaunpasa.

PERU BERAZADI

Aitonaaaa! Bukau deulaaaa!



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



Mario Conde

Nola? Ezin dut sinetsi. Dena den, lasai, galdetu niri, zer nahi duzu jakin? Komunikabideen aurrean ez kikiltzeko aurpegia behar da, larruazal gogorra. Norberaren burua sustatzeko tresna ezin hobeak dira. Eman botoa CDSriiii!

zergatik inork ez du inkestan eta motxian hi!-n agertu nahi?




Bern Krauss

Normalena iruditzen zait. Kazetariok kritikatu baino ez duzue egiten. 4-4-2 sistemak ez duela funtzionatzen, Kuhbauerrek plaiarotarako ere ez duela balio, izen horrekin Bonilla ez doala inora. Nik ere nahiago dut isilik gelditu. No Comènt.- Hori Toshackek esaten zuen.



Tony Leblanc

Beldur izango dira. Nik berriz, ez dut horrelako arazorik. Heriotzak berak beldurra dit. Kirofanoan sartu nintzen azken aldian handik ez nintzela aterako esan zidaten. Nik esan nuen: "Zergatik zaude hain serio. Norbait hiltzera badoa hori neu naiz. Gora bihotz horiek" Ah! Hitz egiteko aukera eman didazunez Santiago Segurari eskerrak emateko aprobeztatu nahi dut.



Eclipse behia

"mmmmmmmmmmmmmmmmmmmm!!!"



Ciccilina eta Zhirinovskiy

Guk ez dugu ezer eskutatzeorik. Kamara baten aurrean edozer gauza egiteko gai gara. Ez al diguzu sinesten? (Erropak eransten hasi dira.... eta mikrofono hori? Ciccilina!!! eeeeezz!)



Ronaldo

Nuuusee. Lehen askoz gehiago ateratzen nintzen komunikabideetan, kamarak eta mikrofonoak atzetik nituen beti. Hura ez nuen gustokoa. Orain berriz, inor ez da nitaz gogoratzen. Ezta nire entrenatzailea ere. Eta hau ere ez dut gustoko. Agur bat bidal dezaket? Susanaaaaa!!!

balezulo
importaturiko enopa eta artisautza

Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449

BARRENETXEA
Garraioak

GARRAIO ASTUNAK

BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

Narrondo. Auzo marginala?

*Urte batzuk badira
Narrondon Auzoko Komisiao
sortu eta Zestoa eta
Zumaiako Udalei auzoan
egin beharreko hobekuntza
batzuk eskatu zizkiela.
Azera, telefono kabina,
trafiko seinalizazioak... Ez
diete erantzuten, "inor ez da
etortzen honera" diote
beraiek. Komisioko lau*

lagunekin egon gara: Aitor

Etxabe, Andoni Zendoia,

Patxi Arriola eta Imanol

Etxabe.



Berrehun bat lagun bizi dira Narrondon, hogeit bat eraikinek osatzen dute auzoa, baserriak kontatuta. 2 Km-ra dauka Zumaiako herria eta 8 Km-ra Zestoakoa, bi udalen eremuen mugak bitan banatzen duenez, auzotarren erdia zumaiarra eta beste erdia zestoarra delarik. "Baina hori botua ematera joan behar dugun egunean bakarrik nabarmentzen da" seinalatzen du Patxik, "izatez gu batik bat narrondotarrak sentitzen gara eta oso bilduta gaude".

Etxebizitzet gain aroztegia, igeltseria, pentsu fabrika, pentsu almazena,

butano almazena, amabirginaren irudia duen kioskoa, bi gasolinera eta bi tailer ere baditu Narrondok. "Lagunekin egon, trago batzuk hartu, afariak, bazkariak, auzotarren bilerak... bi hauetan egiten dugu elkarbizitza guztia" dio Andonik.

Auzoko festak San Kristobalak dira, uztailaren 10ean hasita lau egun. Auzoko komisiok antolatzen ditu eta urtero hainbat ekitaldi antolatzen dira: herri kirolak, bertsolariak, ahari jokua, kontzertuak e.a. Aurten jotak kantatzen zituen talde bat ekarri zuten ekitaldi nagusi bezala: "Etzuen batere arrakastarik izan, baina urtero

zerbait berria probatzea gustatzen zaigu, eta nobedadea behintzat izan zen. Kriston juerga sortu zuen" kontatzen du Aitorrek. Autobusa ere egon zen Zumaiatik.

Gainerantzean, festak eta taberna nahiz soziedade deko jirak alde batera utzita, auzoak ez du bizitza askorik. Erosketak egiteko, haurrak eskolara edo jolasera eramateko, lanerako eta beste hainbat gauzatarako Zumairako joan-etorria egin behar izaten dute. "Hemen jan eta lo, eta jo lagatzen digutenean" botatzen du Imanolek.

"Badakigu hau ez dela beste mundukoa, baina gure auzoa da, eta ez daukagu saltzeko. Kategoria daukagu narrondotarrok" entzuten zaio serio Andoniri.

Arazo nagusiak

Arazo nagusietako bat errepidea dute. Auzoa bitan banatzen du, kurba eginez gainera, eta inolako seinalizaziorik ez dagoenez kotxeak azkarregi pasatzen dira. "Umeak dabilta hemen batetik bestera, eta karretera gurutzatu edo ondoan jolasean aritzea oso arriskutsua da" dio Patxik. Istripuak ere izaten omen dituzte nahikoa sarritan. "Rektan 'a toda ostia' etortzen dira eta gero hemen dominatu ezinda ibiltzen dira. Taberna aurretik ikusita gaude behin baino gehiagotan karreteratik hautsa dariola ateratzen" kexatzen da Imanol.

Bigarren arazoa aisialdirako lekurik eza da. "Lehen goan anbulategian paper bat ikusi nuen" komentatzen du Andonik, "los derechos de los niños" jartzen zuen, eta tartean 'todo niño tiene derecho a tener un lugar para jugar'. Ba Narrondon ez daukate". Frontoi bat eskatzen dute, haurrak bertan lasai ibili ahal izateko. "Ez daukate ezertarako tokirik. Bizikletakin edo jostailuekin hemen, soziedade aurrean, eta horko bidetxurretik gora eta behera ibiltzea besterik ez" segitzen du.

Alkatearen ikuspuntua da falta dena, baina erantzuten ez duenez urrengo batean igual

Zaborrekin dute beste arazo bat. Herrian egunero pasatzen dira zabor biltzaileak, baina Narrondon hiru edo lau egunetik behin besterik ez. Lehenengo egunetik kontainerrak goraino beteta edukitzen dituzte, eta bigarrenetik aurrera gainezka. Beroa egiten duenean dezenteko kiratsa izaten omen dute zaborrengatik. "Lehen esaten zuten barrio marginala Gau-Txori zala, baina ikusten ari gera marginatuenak behintzat geu garela" dio Patxik.

Azera Txikiertit Narrondoraino luzatzea eta suhiltzaileentzat uraren



**CORO
PRIETO**
Esteticista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan



Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

expert
ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6 Tel. 861078



Amertze

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

toma jartzea eta telefono kabina bat jartzea izan dira beste eskari batzuk.

“Kabina ez badute jartzen, errejidarrek bezela egingo dugu, herritik bat kendu eta honea ekarri” botatzen du Imanolek erdi txantxetan erdi serio


Udalen jarrera

Urteetan zehar udaletxeak ez du inbertsiorik egin Narrondon. “Ura ekarri, galipota bota eta basura jarri, hoiek Kastorrek egin zituen. Orduetik, azken hamar urtean, ezerre. Letrero bat bat jarri, eta aurten festetarako lau balde bota galipotanak” kejatzen da Patxi. “Eta seguru lau balde hoiek Zumaian nonbaiten sobratutakoak zirela” segitzen dio Aitorrek.

Auzoko Komisioa 93an sortu zuten. “Gasolindegien proiektua zegoen tartean. Hasera batean beste toki batean jarri behar zituzten, eta permiso eske etorri zitzaizkigun” gogoratzen da Andoni. Soziedadean auzotar guztiak bildu eta guztien firmekin Komisioa osatzea erabaki zuten; zortzi ordezkariekin: lau zumaiar eta lau zestuar.

Batzar hartan bertan, gasolindegiaren kontuaz haruntzago udaletxearen aurrean auzoaren egoera hobetzeko udalei eskari batzuk egiteko kargua hartu zuen bere gain Komisioak. Orduan eskatu zituzten, karreteran segurtasuna bermatzeko neurriak, haurrentzako jolastokia, Txikiardiko azera Narrondoraino ekartzea eta zubiari barandaturia jartzea.

Gutxira udalen erantzunak etorri zitzaizkien. Zestoakoa arazoak konpontzeko Zumaiako Udalarekin elkarlanari ekiteko prest azaldu zen;



Zumaiakoak urte hartako aurrekontua itxita zegoela baina hurrengo urteko aurrekontuan eskariak kontuan hartuko zirela zioen.

94a etorri zen, baina eskariak ez ziren kontuan hartu aurrekontuetan, eta Zestoako alkateak aipaturiko elkarlana ere ez zen inondik ageri. Atzera eta aurrera ibili ziren, buelta horietakoren batean eskatu zituzten suhiltzaileen-tzako uraren toma eta kabina telefonikoa ere, baina etzieten kasorik egin.

“Esaera zaharrak esaten duen bezala, bi jabe dituen zakurra goseak hil, hori da gure arazoa. Batengana joan eta bestearengana joan eta inork ezer eman nahi ez” dio Andonik.

“Inor ez da etortzen honera” jarraitzen du Aitorrek. “Pentsa, piletzako pota berezi hoiek zabaldu zituztenean, txaperoa etorri zen pare batekin. Lurrera bota eta buelta egin zuen herrira. Taladro zarra atera, tornilo batzuk inguratu nonbaitetik, Imanolek

jarri behar izan zituen” dio. “Hemen bertako jendeak egiten du egin beharrekoa. Zergak ordaintzen ditugu, baina gero guk egin behar izaten degu lana. Kioskoa emakumeek garbitzen dute, argia joaten bada geuk jarri behar izaten deua eta dena honela” kexatzen da Imanol.

Bost urte pasa dira eskariak egin zituztenetik. Azkenaldion ahaztuxea zuten istori guztia, majina bat buelta eman ondoren aspertu egin baitziren. Aurtengo hauteskundearen inguruan ordea berriro jarri dira martxan. “Alkateak hauteskundeak zirela eta promesa guztiak bete zituenez botua eman behar zitzaiola esan zuen ‘Diario Vasco’-n egin zioten elkarriketan. Guri behintzat, bat bera ere etzizgula bete esanaz erantzun genion eskutitz batean. Noski etzizguten erantzun” espliketzen du Aitorrek. “Gero festetako kontua etorri zen. Aurrekontuan bi miloi eta erdi aurreikusten dira Zumaiako bost auzoren artean


KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA
TXOMIN AGIRRE KAIA
 TEL. 943 86 21 81

Erribera, 18
 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel./Faxa 943 - 143097
 629 - 450777


elektrizitatea, s.l.
 instalazio elektrikoak
 instalazio musikalak
 antenak - parabolikoak
 akumuladoreak
 portero automatikoak
 telefonia


 Instalador Oficial







Laguntza handirik jaso ez arren, festa politak antolatzen dituzte narrondotarrek


banatzeko. Errezena bakoitzari miloi erdia ematea izango zen, baina ez, kopuru ezberdinak eman dituzte. Esaterako San Migelerako miloi inguru eta guri hirurehun mila pezeta inguru. Poligonoan eta estazioan jende gehiago bizi da, eta haiei gehiago ematea, bale, baina San Migeli? Hura hau baino askoz hilagoa da" segitzen du. "Eliza dutelako emango diete haiei gehiago, baina Konstituzioak esaten du, estatu laiko batean gaudela, eta erlijio arrazoiengatik ezin dela inor diskriminatu" botatzen du Andonik katxondeoan.

Badago kezkatzen dituen arazo berri bat ere. Etxe batzuk egin behar dituztela eta soziedadea behera bota behar duten zurrumurrua entzun dute, eta udaletik ez diete ezer esaten.

"Harreman normal bat nahi degu udalarekin, erantzunen bat izatea. Ez da asko eskatzea" dio Andonik. Soziedadea jendez betetzen ari da, afariak daude eta sukaldetik kostilla erreen usaina dator. "Narrondok historia haundia dauka. Badago dokumentu bat 1352an Narrondon errota zegoela dioena... Gipuzkoan dokumentaturik

dagoen errota zaharrena" dio Aitorrek. "XV. mendean erreminteria ere bazegoen" Andonik. Hobe izango dugu hau beste baterako uztea.

◀ ANTOKA AGIRRE



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 943 14 33 95

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Ausnartu, begiratu, aztertu, ikusi; gazteleraz observar, contemplar. Zerbait normalean baino arreta gehiagoz begiratu.

BeHatu

© BI Ibo BOLSON; Bada garaia Records.
OXFORD eRAKUSTOKIRAKO. IRAILAK 17 URRIAK 3

1999 zumaia Balke B orria Balke



EZ IDAZU GALDEHU ZERTARAKO. GALDEGIDAZU NOIZ ETA NOLA. GALDEGIDAZU NORENTZAT. AGIAN ZEUK AURKITUKO DEZU ERANTZUNA. B ORRIAN. BALKEKO B, ORRIA. ZUREA. GUREA.

Bada garai bat, denbora gelditu beharra sentitzen dena. Garai Bat denbora gelditzeko nahia izaten dena. Garaia, pasa denari zentzua hartzeko, denbora gelditzea pentsatzen dena.

Ikusi ez duguna ikusteko, Begietan gelditu ez zaiguna ikusteko alegia, argazki Bat behar izaten dugula. Batzutan, gertatu dena argazki aunitzez ez Besterik ez deguna ikusten. Gertatutakoa ez delako instant

Bateko gertakizuna.

Gauzak azkarregi doazela sentitzen det mutil. Azkarregi, pasa denaren garrantziaz konturatzeko. Pasa dena garrantzizkoa ote den jakin ere ezingo det egin, ikusi ere egin ez Badet. Ikara ematen du, sekuentzia guztiak ohargabe pasatzeak, eta nik haien

Berri xumea besterik ez izateak. Ikusi ez dudana kontatzen didatenean, baliotsua dela sentitzen det kontatu didatena. Irudirik ikusi ez Badet ere, ikaragarri interesgarria izango delakoan nago, kontatu didaten gertakizun hori.

Bada garai Bat, irudien eta irudi hauen gertakizunen abiada azkarregia dena, nere Begientzat, nere Buruarentzat. Denbora epetan zatikatzen dena; hilabetetan, urtarotan.

BOrduak Balioa galtzen duen garaia. Ordu bakar batek. Gauzak ikusteko, Bakoitzak ehar Bezela ikusteko, ordaindu behar den garai bat. Alegia gauza gehiegi gertatzen direlako garai bereborean, urte Berberean, hilabete Berberean.

Bada garai Bat, gizasemeak eguneko ordu asko pasatzen dituela munduko leku guztietan ordu berbera horietan zer gertazen den ikusten; gero, Besteiei kontatzeko, Bere Begiek ikusi dutena; Beste inork ikusi ez duena.

Bada garai bat, ez ikusteak eta ezeren Berri ez izateak, pertsona ezjakin egiten duena; denbora jakituria kopuruz neurtzen dena eta ezjakinak denbora galdu dela esaten dena.

BeHatu. Heldu da Garaia ta.

“Ama, etxea mugitzen ari da!!”

Afalostean lasai-lasai zaude telebista ikusten. Loak hartzen zaitu eta betazalak eutsi ezinik zabilta. Bat-batean, gela mugitzen hasi dela iruditzen zaizu. Landareak dantzan ari dira, eta une batez bihotzak ihes egingo dizula sentitu duzu. “Ametsetan ari ote nintzen?”.

Ez, lurrikara bat izan da.

Lurrikara txiki bat.

Izan ere, inguru hauetan oso zaila da lurrikara handiak gertatzea. Azken aldian, ordea, lurrikara suntsitzaileak gertatu dira munduan zehar: bat Turkian, bestea Taiwanen. Zergatik gertatzen dira lurrikarak? Lehenik esan behar da lurrazala plaka ezberdinez dagoela osaturik –plaka tektonikoak-. Hauek mugitzen ari dira etengabe, eta beraien artean tentsio ezberdinak sortzen dira. Horrela,

askotan tentsio horien erruz lurrazala hautsi egiten da eta alde bat bestearen gainetik pasatzen da. Adibidez, 1906. urtean San Frantziskon (EEBB) lurrikaran, San Andresko Faila hautsi zen eta azalean agertu zen, 300 kilometroko lerroa osatuz. Alde bat sei metro mugitu zen bestearen gainetik.

Lurraren barnean mugimenduak etengabeak dira, baina gu gehienetan ez gara ohartzen. Nola neurtzen dira lurrikarak? Lurrazala hausten denean energia bat askatzen da, eta energia horrek uhinak sortzen ditu, uhin sismikoak. Uhin hauek intentsitatea neurtzen duen aparailua Sismografoa da. Aparailu hauek lurrazalaren mugimendua neurtzen dute. Gero, Richter eskalaren arabera, lurrikararen tamaina zehazten da -1935ean sortutako eskala da-. Eskala horretan seitik gorako lurrikarak suntsitzaileak dira. Bost graduko lurrikara batek bonba atomikoak adina energia askatzen du.

Zergatik leku batzuetan bai eta beste batzuetan ez? Lehen esan bezala lurrazala plakaz osaturik dago. Esan genezake lurrazala zortzi piezaz osaturiko mosaikoa dela. Piezen ertzetan gertatzen dira lurrikara gehienak eta larrienak.

Itsasoak atzera egiten duenean...

Lurrikara asko itsaso zabalean gertatzen dira. Itxuraz ez dute ondorio larririk, baina Japonia aldean ederki dakite gauzak ez direla horrela. Itsasoan gertaturiko lurrikarek olatu erraldoiak sortzen dituzte, Tsunamiak –portuko olatua japonieraz-. Lurrikara batek ehundaka kilometroko zabalera duen olatua sor dezake. Itsaso zabalean apenas ikusten dira, metroko altuerara ez baitira iristen, baina 700 kilometro orduko abiadura mugitzen dira. Kostaldera hurbiltzen den heinean hondoa jo eta altxatzen hasten da. Itsasoak kilometro batzuk atzera egiten du bat-batean. Ezagutzen den Tsunami handienak 50 metroko altuera zuen.

• Historiako lurrikara hilgarrienak

1755: Lisboa (Portugal)	70.000 hildako.
1908: Messina (Italia)	120.000 hildako.
1920: Kansu (Txina)	180.000 hildako.
1923: Kwanto (Japonia)	143.000 hildako.
1960: Txileko hegoaldea	5.700 hildako.
1972: Managua (Nikaragua)	5.000 hildako.
1976: Guatemala	22.000 hildako.
1976: Tangshan (Txina)	650.000 hildako.
1998: Afganistan	9.000 hildako.
1999: Turkia	milaka hildako.

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabiloi eta herriko argietan

Izaga, 1 behea

Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

Bikingoen guda batean.
XVIII. mendean gutxi
gorabehera



Sendagileren
bat?

Aizul! Ez ezazu hori
jo, behi bat dela!!

Jauna, badakizu
zer daukagun...



Zer nahi duzu
morroi?




... TRAIIDOREA!!!

Txoratuta zaude
ala? Zergatik diozu
hori morroi?

Beno...




Zenbait froga daude.
Adibidez: Kamiseta hau,
puntuazioa bakarrik falta
zaio




Kamuflajea
besterik ez da.
Beste froga
bat izatea espero
dut.



Etor zaitez
nirekin, eta
ikus ezazu.





Jon Maia:

“Txapelketaren aitzakiarekin talde haundi bat bildu gara aspaldiko partez”



Talde polita osatu du Zumaiak Herriarteko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako. Oriori 1071,5-1020 irabazi zioten lehenengo kanporaketako lehen saioan. Jon Maia, Joxe Joakin Aizpurua, Jesus Iribar ‘Olalde’ eta Joxe Angel Salegi ‘Lizarreta’ itziartarra dira bertsolariak. Gai jartzaile lanetan Ibon Aizpurua ‘Epi’, Unai Gijarro eta Josu Manzisidor dabilta, epaile lanetan Eneko Dorronsoro, eta antolatzaile bezala Xabier Azkue. Joanito ere beti bezala gazteei laguntzen. Tomaseneko behean egin diegu elkarrizketa, entrenamendurako zuten bilera aprobetxatuaz. Zerbeza, patxarana, puruak, pintxoak... Lizarreta bakarrik falta da mahaian. Beranduxeago omen dator lanetik.

■ Herrietako taldeen arteko lehia dugu aurten Gipuzkoako txapelketa. Sistema berria da. Azalduko al diguzue pixka bat?

Xabi Azkue: Hasera batean 24 talde daude, eskualdeka seiko multzoetan banatuta. Lehenengo kanporaketarako zozketa egiten da multzo bakoitzeko taldeen artean, eta tokatzen diren bikoteak bakoitzaren herrian bertso afari gisako saio bana egin behar dute. Hemendik 12 talde aterako dira, bigarren fasetik 6 eta finalerdietarako hirugarren faseko hiru saioetako garaileak eta punturik gehien duen bigarrena pasatzen dira. Bigarren fasetik aurrera kanporaketak saio bakarrera dira, saioak ez dira bertso afariak txapelketetako saio normalak baizik, eta tokiak aurrez zehaztuta daude. Bigarren kanporaketako saio bat bat Zumaian

izango da hilaren 23an Aita Mari zineman. Finala berriz Azpeitin abenduaren 19an.

■ Ze bilatu da sistema honetara aldatzearekin?

Olalde. Ikusi dana da Gipuzkoan bertsolari kopuruari dagokionez ikaragarritzko aberastasuna dagola, eta denak martxan jartzeko modu bat izan da hau.

Jon Maia. Gero, taldean ez gara lau bertsolariak bakarrik. Herri bakoitzeko saioa herriko bertso eskolak antolatu behar du, eta taldean gaijartzaileak, antolatzaileak, epaile lanak egingo dituztenak juntatzen gara. Helburuetako bat bertso eskolak aktibatzea da eta Zumaiaiko kasuan behintzat oso ondo etorri zaigu.

■ Gustora zabiltzate orduan.

J.M Aspaldiko partez orain dela hilabete batzuetatik astero juntatzen gara talde haundi bat. Horrek girotxo bat sortu du gure artean, eta aurrera begira zerbait gelditu da.

Olalde. Ni harrituta gelditu naiz hemen dagoen zaletasuna ikusita. Ion, Joxe Juakin, Lizarreta eta hirurok ez ezik bileratara agertzen diren guztiak aritzen dira bertsoetan. Dozena bat behintzat bagara. Lehen harremanik ez genuen eta elkar ezagutzeko modua izan degu.

Gerora bilera hauekin jarraitzeko asmoa dugu

■ Ze entrenamendu egiten dituzue?

J.J. Ekainian hasi ginan. Hasieran bilerak Indamendi soziedadean

egiten genituen, gero afari bat ere egin genuen Narrondon, eta azkenaldian hemen, Tomaseneko behean juntatzen gara.

Olalde. Astero-astero egiten degu bilera. Ahal duena etortzen da eta besterik ez.

Zein izan daitezke talde indar-tsuenak?

J.J. Teorian badaude talde indar-tsuagoak.

J.M. Andoain-Urnieta taldea Mendiluze eta Sorozabalekin...

J.J. Egaña eta Mantxi Zarauzko talde batean...

Epi. Azpeitin bertan badaude bi edo hiru talde, danak onak.

Eta Zumaiakoa, zer moduzko taldea?

J.M. Ez daukagu bentajarik inorrenan, baina desbentaja haundirik ere ez. Talde gehienak oso ekilibratuta daude.

J.J. Entrenatu behintzat goguakin egin deu...

Kanporaketa

24ean jokatu zen Etxe-Onan Orioren aurkako kanporaketaren lehen saioa. Zer moduzko giroa egon zen? Igerri al zen etxean ari zinetela?

I.M. Oso giro ona egon zen. 110 bat pertsona ginan, eta hasi ginenerako, afalostean, jendea nahiko berotuta zegoen.

Olalde. Oriotarrak ere gutxi, baino etorri zirenak ondo preparamatuta etorri ziren. Zortziko nagusian saio txukuna egin zuten euren taldeak, eta haseran bastanteko buila atera zuten.

J.M. Gero ixildu ziren pixkat.

Zer moduz portatu ziren gaijar-tzaileak.

Olalde. Neri tokatutako danak onak.

J.M. Nik uste saioa herri mailakoa izateko oso maila polita izan zutela gaiak.

Epi. Norbaiti entzun nion gaiak pixkat Zumaiaren aldekoak zirala.

Joanito. Orekatuak izan ziren.

Zer moduz topatu zenituzten zeuen buruak?

Olalde. Haseran urduri edo lekua bilatu ezinda behintzat...

J.M. Olalde aspaldiko partez berrize...

Olalde. Gero pixkat mingaina libratu zanean hobeto.

Zenbat urte jendaurrean egin gabe.

Azkena Gipuzkoako Txapelketa batean egin nuen Arrasaten. Urte mordoia badira.

Ion errezago...

J.M. Ni lasai joan nintzan, taldeka izateak konpetizioko tentsio hori jeitsi ere egiten du.

Sentsazioak zer ziren gehiago, bertso afari batekoak edo txapelketa batekoak?

Olalde. Bertso afarian bertso eskas samarra botata ere txalo gehiago egoten da entzuleak beroago egoten dira eta... nik uste det entzuleek gehiago nabaritzen dutela aldea. Entzuten hotz-hotzean jarri edo ordu eta erdi jaten eta kontuak esaten pasa ondoren eta kopa bat gehixeagorekin...

J.M. Entzulearentzat izango da bentaja gehiago, ze Lizarretak afari guztia ura eraten pasa zuen. Afari normal batean etzuen horrelakorik egingo.

Epi. Haseratik ari zen esaten, 'gaur ura edan behar diat!'

Oriotarrak zer moduz?

J.M. Lasartek bertso-afariari grazi puntu bat jarri zion, bera halakoa delako, eta entzuleek eskertu zuten. Beste biak, bueno,

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334



HELBIDE BERRIA!!

Basadi, 7 behea
Tel./Faxa: 943 14 34 53

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



Erribera kalea Tel. 861523

ponentsatu daiteke bere mailan aritu zirela.

Olalde. Nik Sukia ikusi nuen nahiko ondo.

Joanito. Zalantza batzuk izan zituen besteak. Politak ere bai.

J.M. Nik uste det denok bota genuela tarteko bertso politen bat. Txapelketa bateko lehenengo kanporaketa izateko ezin da gehiago eskatu.

3 Zertan egon zen 50 puntuko alde hori?

Olalde. Jonek bakarka egin zituen hiru bertsoak besteengandik kanpo bat jarri zuten...

J.M. Bakarka egin aurretik ere 30 puntuko aldea geneukan, bentaja polita. Hori erregulartasunaren emaitza da. Horrek esan nahi du taldeak ondo funtzionatu zuela.

3 Hilaren 9an Orioko kultur etxean bueltakoa. Ze esperantzarekin zoazte?

J.M. Bentaja polita da 50 puntu. Nik uste det saio normal bat eginda aurrera pasako gara. Baina bertsoetan ez dago aurretik jakiterik, eta ahal den ondoena egitearekin konformatu beharko dugu.



Saio normala eginda Oriori irabaziko diogu

3 Joxe Juakin arituko da Lizarretaren tokian.

J.M. Txapelketak horretarako ere balio du, Olaldek aspaldian ez zuen kantatu eta J.J.k ere ez, eta beste herri askotan ere horrela da.

J.J. Atzokoa ondo etorri zitzaidan neri konfidantza hartzeko...

Olalde. Joanitok esan zidak Joxe

Agirrerekin aritu zinala San Migelen.

J.J. Agirre eta Azpillaga ziren, baina abixua pasa zioten Azpillagari ama gaizki jarri zitzaiola eta joan beharrean aurkitu zen. Komentatu zidaten ea ni jarriko nitzan eta bueno, saio koxkor pare bat egin nituen Agirrerekin eta nahiko ondo.

J.M. Zer esan zian Agirrek?

J.J. Nahiko ondo.

Olalde. 'Nondik irten du honek?' pentsatuko zian...

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373

ITZURUN
KIROLAK

Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

Loredenda
ZEMAR

LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK

Erribera, 1 Tel. 860375

Sailkapena ia eskuetan

Irailaren 24an jokatu zen kanporaketan gure bertsolariak bikain aritu ziren, oriotarrei 50 puntuko aldea atera baitzieten. Beste talde batzuen artean egon den alde txikia ikusita, hurrengo faserako txartela ia lortuta dagoela esan daiteke. Jendearen erantzuna ere mundiala izan zen, 100 lagunetik gora elkartu zirelako Etxe-Onako jantokian, aurrena afaldu eta gero bertso saioa dastatzera.

Giro bikaina sortu zen Herri Arteko txapelketako lehen faseko joaneko-saioan. Afariaren ondoren, trikiti-soinuekin jendea berotzen joan zeneta saioan aldian behin txalo bero eta oihuak ez ziren falta izan.

Zumaiako taldetik Jon Maia, Olalde eta Lizarreta aritu ziren kantari. Oriotik, berriz, Euxebio Lasarte, Xabier Sukia eta Ibai Esoain. Saioak izan zituen gorabeheratxo batzuk, baina oro har ale onak entzun ziren, eta oso on batzuk ere bai.

Gai orokorrean Zumaiako taldeak etekin hobea atera zion gaiari, patera batzean zihoazen afrikarren paperean. Hurrengo lanetan, abantaila handitzen joan zen pixkanaka, zumaiarrek akats handirik gabe bete

zituztelako haien lan denak.

Jonen lanak asko lagundu zuen oriotarrekiko aldea gizentzen, lan guztietan seguru aritzeaz gain bakarkako gaien luzitu egin zelako, 3 bertso borobilekin. Olalde eta Lizarretak ere,

hasierako urduritasuna gainditu eta nahikoa erregular jardun zuten, eta baita une batzuetan aurkariei popa erakutsi ere.

Oriotarren aldetik, Euxebio Lasartek jarri zuen gatza eta piperra, eta neurri eta joskera akats batzuk gorabehera, jendeak makina bat barre egin zuen txapeldun txikiaren ateraldiekin. Sukiak zorrotz jardun zuen saio batzuetan eta baita arrazoi oso onak bota ere. Esoain izan zen, beharbada, hiruretan baxuen aritu zena.

Amaieran, Zumaiako taldeak 1.071,5 puntu jaso zituen, eta Oriok 1.020. Alde handi samarra atera dela ikusita, oso itxaropentsu egoteko arrazoiak badaude, Orion "deskalabrurik" izan ezean behintzat, aurrera egiteko aukera handia dagoelako.

Azpimarratzekoa da, azkenik, saio hau prestatzeko egon den talde-lana: Ibon Aizpurua "Epi" arduratu zen, zenbait laguntzailerekin, gaiak jartzeaz; Arritxu Iribarrek aurkeztu zuen saioa;

Eneko Dorronsorok epaimahaian parte hartu zuen; eta beste hainbat lagun aritu ziren kartelak jartzen, bertsolariak prestatzen, saioa antolatzen, eta abar.

Urriaren 9an Orion

Itzulerako saioa Orioko kultur etxean jokatu da, larunbatean, hilak 9, gaueko 10:30etan. Zumaiatik Jon Maia, Olalde eta Joxe Joakin

Aizpurua arituko dira. Oriotik, berriz, Xabier Sukia, Ibai Esoain eta Iñaki Gurrutxaga.

Jada bigarren faserako sailkatu dira Azpeitia-Urraki, Erniope, Zarautz-Jai Txiki, Aia, Urnieta-Andoain eta Goierri-Ordizi. Guztira 12 talde lehiatuko dira, nor baino nor, 6 saiotan. Kanporaketa hauek saio

bakar batera jokatu dira eta horietako bat Zumaian izango da, urriaren 23, gaueko 10etan, Aita Mari zinean. ◀ **XABIER AZKUE**


LIBRUDENDA
AIZPURUA
Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569


Zerbitzu Ofiziala
ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatu

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 861853

Triatloian Asier Bilbao izan zen garaile

Irailaren 25ean jokatu zen V. Zumaia-Zestoa-Azkoitia triatloia. guztira 200 partehartzaile baino gehiago izan ziren irteera puntuan triatloiko hiru probak osatzeko asmoz eta hauen artean, nola ez, zumiar multzo zabal bat. Lehenengo frogan, kilometro t'erdiko igeriketa saioa zen: Arbus-taingo arranpatik irten barra berriaren parean buelta eman eta berriro arranpara itzuli.

Igeriketa amaitu eta bizikletako probari ekin zioten triatloilariek. Guztira, 20 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten eta hau gutxi balitz, korrika 10 kilometro egitea geratzen zitzaizkien partaideei Azkoitiako kaleetan barna.

Triatloi honetako gizonik azkarrena Kebi Sporteko Asier Bilbao gertatu zen 1h:52:44ko denborarekin; bere atzetik, Patakoneko Borja Osés sailkatu zen eta hirugarren, berriz, Fernando Cabellos. Emakumezkoetan berriz, onena Judizmendi taldeko Ainhoa Murua izan zen 2h:15:48ko denborarekin; bigarren Aintzane Argaitz eta hirugarren Sara Alonso sartu ziren helmugara.

Zumaiarren artean triatloilaririk onena Xabier Alzibar izan zen. 38. postuan sartu zen helmugara eta berak egindako denbora, 2h:12:04. Bigarren herritarra, Jon Ulazia suertatu zen eta hirugarren Ramon Egiguren. Triatloia amaitu zuten beste zumaiarrak Iñaki Aizpurua, Jose Luis Suarez, Jose Mari Odriozola eta Juan Ignacio Alkorta.

Proba hasi aurretik, Fernando Balenziagari omenaldi bat eskaini zioten antolatzaile eta triatloilari denek. Gogoratu behar da orain urte bete gazte zumaiar hau lehen proba betetzen ari zela hil zela. Hori dela eta bere familiari lore erramu bat eman zitzaion eta isiltasuneko minutu bat egin zen.



Jaime Osa eta Xabier Irureta zumaiar onenak Zakila biran

Oskar Iburguren eta Sonia Aragónek irabazi dituzte gizonezkoen eta emakumezkoen lasterketak



Urriko lehenengo asteburuan korritu zen III. Zakila Bira lasterketa herrikoia. Aurtengo honetan aurreko edizioetan baino lasterkari gehiago izan dira irteera puntuan, 340 inguru. Gizonezkoetan 306 lagunek amaitu zuten proba, emakumezkoak 18 ziren eta hauez gain, bi elbarrituk ere osatu zuten ibilbide osoa.

Gizonezkoetan, garaipena Oiartzungo Oskar Iburgurenentzat izan zen, ibilbide guztia 1h:06:38an egin zuelarik, eta Azpeitiako Xabier Iturralde eta Jose Mari Peredaren aurretik heldu zelarik. Emakumezkoetan berriz, Sonia Aragonek irabazi zuen 1h:24:13ko denborarekin, bigarren Rosa Orofino suertatu zen eta hirugarren berriz, Josune Tercero.

Zumaiarren artean helmugara heldu zen lehena Jaime Osa izan zen, 1h:10:14eko denborarekin. Bigarren Xabier Irureta izan zen eta hirugarren Jon Sasiain. Nahiko aurrean sartu ziren zumaiarrak Felipe Esnal, Juan Igancio Alkorta, Iñigo Etxaniz eta Martxelo eta Peio Santamaria izan ziren.


taberna JUSTA
eguneroko bazkariak
Erribera kalea, 20

KABI
TABERNA - ZUMAIAR
Tel. 143379

kalari
J
A
T
E
T
X
E
A
* Eguneroko bazkaria
* Pintxo eta bokatak
* Koadrilentzako menu bereziak
* Kazuelitak eta plater konbinatuak
Erribera kalea, 16
Tel. 862517

Hamar urte saskibaloian, eta segi aurrera

Desagertzeko zorian izan den arren, azkenean saskibaloitaldeak beste urtebetez jarraitzea erabaki du.



Kirol batek erro sendoak ez baditu, oso zaila izaten da klub bati eustea. Berandu baino goizago, taldeak desagertu egiten dira belaunaldiekin batera. Saskibaloia kasua da. Zumaian duela hamar urte jaio zen Zumaiaiko Saskibaloit Taldea, eta 2000. urtera ez iristeko zorian izan da. Azken unean, ordea, jarraitzeko erabakia hartu dute, taldeko gazteenen gogoek bultzaturik batik bat.

Hamar urtez jokatzen jardun ondoren jarraitzeko gogo gutxi izaten dira. Are gutxiago hasierakoak eta oraingoak ia jokalar berdinak direnean. Zumaiaiko saskibaloit taldeak apenas jaso du odol berririk 1990. urtean sortu zenetik. Harrobia sortzeko bizpahiru ahalegin egin dira, baina kirol honek ez du aparteko afiziorik sortzen Zumaiaiko gazteengan. Hamarkada erdialdean izan zituen talde honek urte onenak. Mailaz igotzea ere lortu zuten, eta orduan egin zen bigarren talde bat

sortzeko ahalegin sendoena. Han bildutako gazteak dira orain klubak aurrera jarrai dezan nahi dutenak. Beterano gehienek jadanik ez dute ilusiorik.

Oraingoz zortzi jokalar bildu dira taldea osatzeko. Beraien ustez nahikoa izan daiteke guztiek serio hartuz gero, baina norbaitek jokatze gogoa badu atek zabalik daudela iragarri nahi dute. Iñaki Arrieta eta Miguel Angel Aguadoren esku geldituko da taldearen ardura. Asmoak apalak dira. Jokatzen jarraitu nahi dute, kirol hau maite dutelako, eta kirola egiten jarraitzeko aukera ematen dielako.

Arazoak bestalde, betikoak izango dira. Taldeak ez du aurrekontu handiegirik behar, baina Udalaren laguntza kolokan izan daiteke aurreko urteko esperientzia kontuan izanik. Orduan Udalak harrobia landu eta gatzetxoen talde bat osatzeko baldin-

tzarekin eman zien laguntza. Kadete mailako taldea osatu zen, baina zeharo desegin da. Bigarren talde hori gabe, baliteke Udalak laguntza ukatzea.

Jon Argoitia Zarauzko entrena-tzaile

Jon Argoitiak Zarauzko jubenil taldea entrenatuko du aurtan. Jonek iaz Zumaiaiko kadeteak zuzendu zituen, eta taldea desegitean Zarauzko bidea hartzea erabaki du. Berekin batera, Zumaiaiko hiru gazte eraman ditu, iaz kadetetan aritutakoak. Hiru jokalar hauek saskibaloian jarraitu nahi zutela eta, Zarautzen leku bat egin diete, ikasten jarrai dezaten. Ez dira inoizko garai onenak, baina saskibaloia ez da oraindik hil.

◀ GORKA ZABALETA

Kresala
— edergintza —

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

KUKUTZ
serigrafia

- *kamisetak
- *txiskeroak
- *paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6 Tel. 860415

Hasiera ona eman dio Pulpok denboraldiari

Puntu bat ekarri zuten Burgostik, partidu borrokatu jokatu ondoren



Pulpok estreineko partidua izan zuen Lehen Mailan urriaren 2an, Burgosko Ferroplas talde indartsuaren aurka. Zumaiarrek partidu ona egin eta puntu garrantzitsu bat urratu zuten (24-24). Lehen zatian gehiago zirela erakutsi zuten Txintxillaren jokalariek eta partidua erabakita uzteko moduan izan ziren, baina atsedenera berdinketarekin iritsi ziren. Bigarren zatian nor baino nor aritu ziren bi taldeak, eta gaztelarrak aurreratu ziren azken txanpan. Dena galduta zegoela zirudienean, zumaiarrek bi gol egin zituzten azken 40 segundoetan eta urrezko puntua lortu.

"Lehen zatian aukera gehiegi galdu ditugu eta hortxe egon da partiduaren gakoa. Atsedenaldira abantaila onarekin joateko moduan ginen, baina jokaldi garbietan ez gara fin ibili eta bigarren zatian beraiek gora etorri dira, fisikoki gehiago zirelako. Baina guk ez dugu burua makurtu eta azkenean puntua atera diegu. Gustora

nago egindako partiduarekin". Horrelaxe laburutu zigun Juanma Txintxilla entrenatzaileak lehen partidu horretan ikusi zuena. Orokorrean, gustora agertu zen taldeak egindako jokoarekin, eta jokalariek agertutako jarrera azpimarratu zuen: "Azken minutuan erakutsi dute fede handia dutela, baita une zailenetan ere. Minutu erdia falta zen, beraiek aurretik ziren eta baloia zuten. Hutsartea eskatu eta jokaldi hori nola defenditu behar genuen hasi nintzen azaltzen. Jokalariak berriz, azken erasoa nola egin behar zuten ari ziren pentsatzen. Bazekiten baloia berreskuratuko zutela eta partidua berdintzeko aukera izango zutela. Jarrera hori oso garrantzitsua da". Izan ere, aurten partidu asko erabakiko dira azken unean: "Denboraldi hau oso lehiatua izango da. Talde guztiek pareko maila dute, eta lehen minututik azkenera arte topera jardun beharra dago".

Bigarren partidua urriaren 9an jokatu dute, etxean, arratsaldeko 7:15etatik aurrera. Aurkaria, Santanderreko Caja Cantabria izango da. Pulpokoek jendea kiroldegira hurbiltzea nahiko lukete, aurten zaleen presioa eta bultzada inoiz baino garrantzitsuagoa izango baita. Etxean sendo aritu beharra dago, kanpoan puntuak urratzea ez baita batere erraza izango. Bestalde, gogoratu bazkide egiteko aukera dagoela. Denboraldi osorako txartelak 5000 pezeta balio du.

Odolkiak ordainetan

"Talde igoberria, esperientziarik gabekoa da Pulo. Partidu nahikoa erraza Ferroplasentzat Ligako estreinekoan". Halaxe zioen "Diario de Brugos" egunkariak partiduaren egunean. Izan ere, Ferroplas taldea Burgosko lehen taldea da eskubaloian, eta 14 milioi pezetako aurrekontua du. Mailako talde indartsuenetakoa da eta ezin zuten espero Pulpo txikiak handik puntu bat ateratzea. Odolkiak izan zituzten ordainetan. Kiroldegira hurbildutako zaleek belarriak ongi berotu zizkiguten, baina hure ezinaren isla baino ez zen izan.

◀ GORKA ZABALETA



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422



Malaur



KÉRASTASE PARIS

Maite
ileapaindegia

Tel. 143278

urria

ERAKUSKETAK:

"ZUMAIA-ABERTZALETASUNA 1932-1940"

Erkibe Kultur Elkarteak antolatua.

- ▶ Hil osoan zehar
- Batzokian

EGIGUREN ANAI-ARREBEN KUADROAK

- ▶ Urriaren 8tik 24ra
- Oxforden

IÑAKI OLAZABALEN ESKULTURAK

- ▶ Azaroaren 5etik 21era
- Oxforden

CRISTINA PUJALTEREN MARGOAK

- ▶ Azaroaren 8tik 21era
- Forondan

ASTEBURU MIKOLOGIKOA

- ▶ Urriaren 15etik 17ra bitarteko asteburuan
- Ostiralean, hilak 15, arratsaldeko 7etan Kofradiako plazan: herriko tabernek prestatutako perretxikoen dastaketa.
- Larunbatean, hilak 16, goizeko 7etan: perretxikoak biltzeko irteera kotxe partikularretan edo autobusean.
- Igandean, hilak 17, goizeko 11etatik eguerdiko 2etara, eta arratsaldeko 5etatik 8etara: perretxikoen erakusketa pilotalekuan.

LUDOTEKA ZABALTZEAREN FESTA:

- musika, jolasak eta sorpresak.
- ▶ Urriak 15, ostirala, arratsaldeko 5etatik 7etara

TANTTAKA TALDEAREN "DAKOTA" ANTZEZLANA.

- ▶ Urriak 15, ostirala, gaueko 10.30etan
- Aita Marin

TXISTULARI ALARDEA

- Honen barne, Amaia Zubiria, Pascal Gaigne eta Gorka Regilen kontzertua izango da.
- ▶ Urriak 16, larunbata



ZINE FORUM SAIOA:

- Neil LaButeren "Amigos y vecinos".
- ▶ Urriak 21, osteguna, gaueko 10.15etan

Erick Zoncaren "La vida soñada de los angeles"

- ▶ Azaroak 4, osteguna, gaueko 10.15etan
- Aita Mari zinean

GIPUZKOA BERTSOLARI TXAPEL-KETAREN barne sailkapen saioa.

- ▶ Urriak 23, larunbata, gaueko 10etan
- Aita Marin

HAURRENTZAT IPUINKONTAKETA

- Pello Añorgaren eskutik
- ▶ Urriak 27, asteazkena, 5.30etan
- Forodan

LOURVIER'S TALDEAREN "LOURVIER' STORY"

- ▶ Azaroak 12, ostirala, gaueko 10.30etan

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Eparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

ILE APAINDEGIA

herrea Uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342



GILANO

LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7
Tel. 143191

ZINE FORUM

Urria 21, osteguna

Amigos y vecinos (1998)

Zuz: Neil LaBute

Amigos y vecinos filma aurreko urteko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten, eta aurkeztu ziren filmetatik zer esan handienetakoa eman zuena izan zen. Pelikula hau Neil LaBute iparamerikar gaztearen bigarren filma da, eta aurreko *En compañía de hombres*-en bezala ikuslea inkomodo samar uzten du. Hartan LaButek yuppie batzuen joko immoralala lantzen bazuen, oraingo honetan New Yorkeko bikote eta pertsonaia bakartien bizitza sexuala tratatzen du. Bere emaztearen lagunarekin harremanak dituen senarra, masturbazioa glorifikatzen duen yuppie ergela, emakumeak zaborra balira bezala tratatzen dituen pertsonaia jasanezina, beti inguruan duen pertsonaz maitemintzen den lesbiana, etab. Umore oso gordinarekin kontatuta dagoen filma honek, alde batetik sekulako arrakasta izan du gure inguruko hiri batzuetan, Bilbon adibidez, pelikula hau eskaintzen zen zine aretoan beti ere txartelak agortu egiten baitziren. Bestetik kritika banatu egin da, batzuentzat azken urteetan amerikar zine independente mailan egin den lanik bikainenetakoa da, beste batzuentzat, aldiz, filma hotza da, itxaropenik gabea. Hau idazten duenaren ustez, Todd Solondzen *Happiness* izugarriarekin batera, Estatu Batuetatik etorri zaigun filmarik onenetakoa da honako hau. LaButek behintzat ez du inongo beldurrik izan maldaz behera doan gizarte baten erretratu hau egiterakoan.

Azaroak 4, osteguna

La vida soñada de los angeles (1998)

Zuz: Erick Zonca

Aurreko urtean filma honetan lan egiten duten bi neskek, beste hainbat aipamenekin batera, Canneseke aktore onenaren urrezko maskorra eraman zuten. Donostian ere hainbat sari jaso zuen Erick Zoncaren lehen filma honek. Frantziako akademiak ere urteko filma onena bezala hartu zuen *La vida soñada de los angeles*. Eta zer kontatzen du ba filma frantziar honek hainbat sari jasotzeko? Bizitza. Bizitza kontatzen digu. Bizitza den bezalakoa, gogorra, kupidagabea. Bi neskek Frantziako iparraldeko Lille hirian jasaten duten bizitza. Langabezia egonda maitasunaren bila dabiltzan bi neska. Hala ere ez ezazue espero pelikula guztia modu depresibo batean kontatzea. Badaude bai, barrea eta algara, itxaropen izpi txikiak ere noizean behin agertzen dira laino artean. Zine frantses bikain horren adibide oso ona da *La vida soñada de los angeles*. Nahiz eta gehienetan frantziarrak zine pretenziosoak egiten nagusiak izan, noizean behin ikusle denak txundituta uzten gaituen filma ederrak egiten ere artistak dira. Hau horietako bat da, ez ezazue galdu.

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Harri barruko bihotz-borrokak
Geronimo
Parisko Andre Maria
Hollywood eta biok
Ipuin euskaldunak



Juan Luis Zabala
Imanol Murua
Victor Hugo
Javi Cillero
Gerardo Markuleta

Gaztelerez

Encuentros en Telgte
El caso Galindez
Relatos
La delgada línea roja
Historia de Navarra, el Estado Vasco



Günter Grass
Manuel de Dios Unanue
José Lezama Lima
James Jones
Mikel Sorrauren

Haurrak/Gaztetxoak

Benetako lagunen aterpea
¡Viva Ramona!
Rus doktorea
Atea kox-kox
Patxibusa



Pako Aristi
Beverly Cleary
Gloria Sanchez García
Juan Kruz Igarabide
Joxantonio Ormazabal

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
ZUMAIA

Dani Carballoren erakusketa Oxforren

"Ideia 'Smoke' pelikula ikusi ondoren sortu zitzaidan" kontatzen du Danik. "Protagonista, Hearvey Keytel (?), estanku baten jabea zen, eta goizero-goizero zortzirak puntuan denda aurrera irten eta argazki bat ateratzen zion kaleari. Gero album ezkutu batean gordetzen zituen argazki hauek, eta ezkutuan egoten zitzaien begira" segitzen du. "Paranoia bat iruditu zitzaidan, baina gustatu, eta beste era batetara planteatuta zerbait egiteko bidea ikusi nuen" dio.

'Irudiak biderkatzen hasi zirenetik gauzak ikustera' jarri dio izenburua erakusketari. "Argazki segidak fotogramak izango balira bezala antolatuz argia, mugimendua eta hainbat bilakaera ikustea da ideia, argazki bakarrean estatiko daudelako eta bizitza errealean azkarregi edo motelegi aldatzen direlako ikustezin bihurtzen den gauza mordo bat begibistan jartzea." esplikatu du.

Kursala, Salamanca pasealekua eta San Bizente auzoko kartelei buruzko segidak dira erakusketako lan nagusiak.

Lenengoak 450 argazki ditu hiru urtetan zehar ateratakoak, bigarrenak

170 argazki bederlatzi hilabetetako epe batean ateratakoak, eta biak ere 'Smoke'ko pertsonaiaren teknika bera erabiliaz osatu ditu: lantoki aurrera irten eta, klaska, argazki bat egunerok. "Salamanca pasealekuko bulego batean egiten dut lan, lehiotik Kursala ikusten dut, eta aprobeixatu egin behar' dio berak.

Kursalaren proiektua polemikoa izan da, baina azkenerako zeharo konbentzitu du Dani. "Aldatuko nituzke detaile batzuk, baina konjuntuan oso ondo dagoela iruditzen zait, eguzkia nola sartzen zaion..." komentatu du. Segidan eraikina pixkanaka nola altza eta osatzen den ikus daiteke, lau burni izatetik egungo kuboetara. "Arkitektura gustatzen zaion batentzat, eta hori da nere kasua, gozamen bat da holako eraikin bat nola altxatzen den ikustea" esplikatu du.

Hala ere kartelen segida du kuttunena. Donostiako San Bizente eliza obratan egon den bitartean egurrezko hesi batez inguratu dute obra, propaganda kartelez beteta egon da hesi hori, eta Dani astero-astero joan da bisitan kartelei argazkiak



ateratzera. 200 argazki atera dizkie. "Gusto gehiena hartu diodana kartelena izan da, kriston koloridoa dute, danetik dago, eta joaten nintzen bakoitzean dezenteko kuriosidada izaten nuen zer topatuko ote nuen" gogoratzen du. "Kromoak kolezionatzea bezela izan da" dio parrez. "Denetarik egin daiteke kartelekin. Paretetik kendu eta 'collage'-ak egin, argazkiak egin eta manipulatu... oso plastikoak dira eta efektu politikak lortzen dira beraien gainean lan eginda. Badaukat ideia honekin lan gehiago egiteko asmoa" bukatzen du.

Irailaren 17tik Urriaren 3a bitartean egongo da erakusketa hau Oxforren, Zumaiako Arte Taldeak udararo antolatzen duen herriko artisten erakusketen zikloaren barruan.

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituzenean

- Klase teoriko ikusentzuzkoen abantailak erabiltza

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416

zidatzeko baimen guztiak





Buena Vista Social Club berri honen historia 1997an hasten bada ere, bere historia orain dela urte asko hasi zen, Kubako musika herrikoia-aren historia baita. Ry Cooder musikari estatubatuar-ak du fenomeno honen errua (horrela esan badaiteke). Orain dela hiru urte Kubara bidaiatu zuen bertako musika gertuagotik ezagutzeko asmoz eta urte berean uharteko musikari hoberena-ekin kaleratu zuen Buena Vista Social Club izeneko lehen diska. Musikari hauek, denak maila izugarrikoak



(Compay Segundo, Ibrahim Ferrer, Eliades Ochoa, Rubén Gonzalez eta beste asko), musikazaleen memorian ahaztuak zeuden, eta gaur egun, inoiz baino ezagunagoak dira.

1998an Ry Cooder berriro ere Kubara itzuli zen Ibrahim Ferrer-en single bat grabatzera. Oraingoan Wim Wenders zinegileak eta berak zeraman zine ekipo txiki batek ere La Habanara bidaiatu zuen, musikari hauen bizitza filmatzeko asmoz: kalean, estudioan... Amsterdamen emandako bi kontzertu eta New Yorken eskainitako azken emanaldiak ere filmatu zituen. Lan honen emaitza Donostiako Zinemaldian ikusteko aukera izan dugu. Kubako musikari hauen artean ezagunena Compay Segundo bada ere, badira kaleratu diren beste disko interesgarri batzuk, hala nola, orain gutxi atera den Ibrahim Ferrer aitonarena. Grabazio honetan Kuban egiten diren erritmo eta estilo ezberdinak entzun daitezke: son, bolero, guajira, mambo, guaracha... Disko hauek irlako musika ezagutzeko aukera ezin hobea dira.

Ibrahim Ferrer 1927ko otsailaren 20an jaio zen San Luis herrian. Bere lehen taldea "Jovenes del Son" izan zen, bere lehengusu batek sortu zuena. Laister deitu zioten beste talde

batzuek eta horrela egin zen ezaguna. Beny Moré ezagunarekin lan egin zuen atzerrian eta azkenik "Los Boucos" taldea sortu zuen. Azken talde honetan bere bizitzako 34 urte pasa zituen. Kubako egoera politikoak eraginda, herrialde komunistetan zehar bidaitu zuen, sonaren berotasuna zabaldu nahiean. 1996an eguneroko paseotxoak egiten hari zela, bolero bat abestea eskaini zioten. Orditik Ibrahim ez da gelditu. "Buena Vista Social Club" eta "Afro Cuban All Stars" diskoetan parte hartu du, eta orain gutxi "Ibrahim Ferrer" izeneko bakarkako lehen diskoa kaleratu du. Disko honetan Buena Vista Social Clubeko musikari batzuek ere parte hartzen dute, eta baita ere Teresa Garcia Cartula bezalako abeslariak besteak beste. Bertan Kubako konpositore klasiko batzuen kantak abesten ditu: 'Que bueno baila usted', 'Marieta', 'Aquellos ojos verdes' edo 'Cienfuegos tiene su guaranco'. Abesti hauek betikoak eta betirakoak dira, asko sufritu eta sufritzen duen herri baten beste aurpegia: kultura, erritmoa eta bizitza. Argi dagoena zera da, gizon eta emakume hauek identitate indartsu bat dutela eta hori ez dela zapaltzen ez diruaren bidez eta gutxiago indarrarekin.

Beste disko gomendagarri batzuk:



Buena Vista Social Club (1997)



Afro Cuban All Stars (1997)



Compay Segundo: Calle salud (1999)

INMOBILIARIA

 BIDAIK
 Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

T M TALAI-MENDI
 DEKORAZIOA
 * Eskaiola
 * Pintura
 * Pladur
 * Erreformak oro har
 ENKARGUAK: Juan Belmonte, 35
 Tel. 929-550574

ttikittaka

 haur
 oinetakoak
 BALTASAR ETXABE 2/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA



Luis Aladren arkitektoak Villa Pilar eraiki zuen Amabirjina Bistako magalean. Mendi maldan eraikitako etxeak izugarrizko oinarri sendoa behar zuen gainean landetxe itxurako txaleta sostengatzeko. Luis Aladren Eusebio Gurrutxagaren alabarekin ezkondu eta horregatik eraiki zuen txaleta Zumaian.

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! ea tarta goxoa
nork eramaten duen!!!



Nolako emaitzarekin amaitu zen Zumaia-Orio arteko bertso-lehiako lehen saioa?

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure buzoian edota Txapartegin bertan uztea, azaroaren 5a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!

TXAPARTEGI GOZOTEGIAK emandako azken tarta guk jan beharko dugu oraingoan. Ziur batek baino gehiagok bidali diguzuera erantzuna, baina artabururen batek buzoiak izorratu ditu berriro (hirugarren aldian da jadanik).

TXALAPARTA
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



TXINGURRI
Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kales, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kales, 33 0.3ª 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kircel zelaien mantenimendua
Txostenak ...
ahalkuntza teknikoak,
Bacarioak

TXOKO
BERNA



Artadi auzoa
Tel. 862189

motxian hi!



zein: Enrique Bunbury

zer: Bunbun

nola: Inoiz isilduko ez den sasiheroi mutantea

Zure 3.567. errenkarnazioa Manu Chao izan omen zenuen?

Hala da, baina itxura denez oraindik ez nago maila honetara iristeko prestaturik. Nire karma ez dago prest.

Baina 3567 errenkarnaziok gauza asko egiteko ematen dute.

Ni mundura etorri nintzanean ameba bat bat nintzen, I.U. bat. Gero sasoi begetal bat izan nuen, luzea: porrua, marihuana, koka ostroa, opioa, mongia... denetarik izan naiz. Bizitzaren kate mailan izaki konplexuagoa bihurtzen joan nahiz. 2500. errenkarnaziotik aurrera gizakia naiz. Kaligula, Sade, Txirrita eta Adolfo Suarez izan naiz, besteak beste.

Baina Adolfo Suarez bizirik dago oraindik.

Bai, baina ezin nuen gehiago aguantatu eta exedentzia eskatu nuen. Horregatik Enriku Bunbury izatera degradatu ninduten. Ni ez nengoen ados egoera horrekin eta beste disidente batzuekin Heroes del Silencio taldea osatu genuen.

Zergatik Heroes del Silencio izena?

Taldeko kide guztiok injustizia berdina jasan dugu. Guztiok izan gara degradatuak. Alan Baguslavskyri adibidez, Rosa Diezena egitea egokitu zitzaion, eta normala denez berak "ke ni patrás". Pedro Andreuri Antxon Urrosoloren papera eman zioten, eta entzun bezain pronto ia burusoil gelditu zen sustoarekin. Sistemak zokoratu egin gaitu, Isilpeko heroiak gara.

Etorkizunean zertan errenkarnatu nahiko zenuke?

Denetarik frogatu dut, eta azkenean ohartu naiz behin bakarrik izan naizela zoriotsu, I.U. bat nintzanean. Hura bai bakea! Pentsatu beharri ez... Akabo droga konplexuak, akabo mongiak, koka ostroak, marihuana eta porruak. I.U. bat izn nahi dut!!!

aek Festa, piropo eta tortila pintxoan artean

Urriaren 2an ospatu zen azkenean aek festa. Eguraldian ez zuen gehiegi lagundu eta jokoak bertan behera gelditu ziren. Hala ere, patata tortila lehiaketa burutu zen, eta piropo lehiaketako irabazleen berri ere eman ziguten. Tortilarekin Mari Karmen Astigarraga izan zen abilena; piropoekin berriz, Xabier Azkue. Hona hemen piropoetako batzuk (patata tortilarik ez zen gelditu).

piropoak

1. saria: Gustora asko jango ziñuzket, zurrukuttuna!! (Xabier Azkue)

Aipamena: Hire xarmak ene bizitzaren garraztasuna gozaten din. (Ibon Manterola, Egoitz Lizaso)

Aipamena: Polita. (Xaxi)

Denak bagina txori eta zu estatua inork ez luke egingo zure gainean gorotza sekula (anonimoa).

Aipamena: Ni naun preso: hi Euskal Herria. (Ibon Manterola, Egoitz Lizaso)

Zein ederra litzateken mundua zu gabe.

Aipamena: Ostiraleko siesta baino gehiago zaitut gogoko. (Juan Luis Sanchez Garcia).

Zu, goizeko hirurak eta laurdeneko azkenengo zuritosa bezalakoa zara.

Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148082
20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 148124
78 postakutxa

AROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu epnptratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505



Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era fuztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60



"Muagi"

Medikuntza eta errehabilitazio zentrua

Aita Mari poligonoa, 3. blokea. Tel. 943 86 16 91

Z U M A I A



KIRURGIA OROKORRA

Juan Ignacio Alberdi doktorea

ERREHABILITAZIOA

Maria Etxaniz doktorea

FISIOTERAPIA ETA

INDARBERRITZE FUNTZIONALA Inma Cabanillas anderea

KIROL MASAJEA ETA TERAPEUTIKOA

KIROL ETA ARIKETA

FISIKORAKO MEDIKUNTZA

J.M. Gonzalez Aramendi doktorea

- Kirol gaitasuna neurtzeko azterketak
- Esfortzu frogak
- Kirolerako balorazio eta segimendu medikoa

KOSTA GAS C.B.



BUTANO

ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE




Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA

BUTANO

PROPANO



DORNUTEGI

SUKALDEKO HALTZARIAK

Basadi auzoa, 10 behea Tel. 862051



Sukalderako hornikuntza
diseinuak.

Lanen zuzendaritza.

Edozein sukaldetara
moldaturiko diseinu bereziak.

Kalitate-prezioan parekorik ez.